

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteazkena, 2011ko ekainaren 29a. VIII. urtea. 2.252. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Eskualdeko udal guztiak osasun publikoaren alde agertu dira

Tolosaldeko alkateekin batera Andoaingoa eta Legorretakoa elkartu dira Tolosan; guztiak Asuncion klinika publiko egitea eskatu dute

TOPA koordinakundearen aldarri guztiak bat egin dute hautetsiek, eta Eusko Jaurlaritzak «bultzatu nahi duen erreformaren aurka» agertu dira 02



Tolosako udaletxean burutu zen osasun publikoaren aldeko prentsaurrekoa. Bertan eskualdeko udal ordezkariak elkartu ziren. LURKIZU

Itsaso Leunda ez da bakarrik egongo triatloi proba gogorrean

Austriako Iron Manean eskualdeko bederatzikiolarik hartuko dute parte; Tolosatik gaur irtengo dira Europa erdialdera 03



Tolosako IBK Kiroiak dendan egindako aurkezpeneko irudia. A. IMAZ

Blues-aren izarrek argituko dute Tolosa ostiralean eta larunbatean

Tolosand Blues 2011ko egitaraua aurkeztu dute; Janiva Magness eta Sax Gordon igoko dira oholtza gainera blues zaleen gozamenerako 02



508 BERRIA

*Prestutasuna eta teknologia
Zirrara eta exigentzia
Sorkuntza Berriko berrikuntza*



*Ez bilatu gehiago,
Tolosa Motorren zure amestetako autoa daukagu,
508 Peugeot berria.*

TOLOSA MOTOR, S.A.
PEUGEOT KONZESIONARIOA
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA

Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

P-508





Eskualdeko alkateak Tolosan elkartu ziren prentsaurrekoan. I. URKIZU

Eskualdeko alkateek Asuncion klinika publiko egin nahi dute

Helburu hau lortzeko bidean, edozeinekin hitz egiteko prest daudela nabarmendu dute alkateek

Itzea Urkizu

Tolosaldeko, Andoaino eta Legorretako alkateek eskualdeko osasun publikoaren inguruko prentsaurrekoa eskaini dute. Besteak beste, Asuncion klinika publiko egitea eskatu dute.

Tolosaldeko espezialitateen anbulatorioa ixteko, «krisiaren argudioa ezin» dela erabili diote alkateek, eta honek «gaur egungo egoera aldtu eta kaskartu» egiten duela; gogora ekarri dute, urologia eta oftalmologia bezalako espezialitateak Asuncion klinika pribatua artatzen direla gaur egun. Honen harira, Euskal Herriaren eskualdeko ospitale publikoak ez duen bailara bakarra Tolosaldea izatea, ezinezkotzat jotzen dute: «duguna ez dugun galdu nahi

eta etorkizuneko egoera hobetzea nahi dugu». Horrela beraz, Tolosaldeko alkateek Euskal Herriko gainerako herritarrek jasotzen duten zerbitzua izatea «nahi» dutela eta «defendatuko» dutela nabarmendu dute.

«Erreformaren aurka»

Tolosaldeko prentsaurrekoan bildutako alkateek, argi eta garbi azaldu dute euren jarrera. Modu honetara, Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde (TOPA) koordinakundeak adierazitako aldarri guztiekin bat egiten dute, sostengua emanez: beharrezkoak diren langileak jartzea, espezialitateen anbulatorioari beharrezkoak dituen tresnak ematea eta kudeaketa publikoa izango duen eskualdeko ospitale publikoaren herritarren esku jartzea.

«Eusko Jaurlaritzak bultzatu nahi duen erreformaren aurka» daudela azaldu dute, eta aipatu bezala, ez dutela espezialitateak Asuncion klinikara pasatzerik nahi. Era berean, euren desadostasuna adierazi dute, erreformak

aurrera jarraituz gero, klinikako zerbitzuak ordaintzerakoan gertatuko den aldaketarekin. Gaur egun, Osakidetza mediku ekin-tza bakoitzagatik ordaintzen dio Asuncion klinikari; erreformaren ondoren, ordea, osasun liburu-ruxka bakoitzagatik diru kopuru bat jasoko du klinikak. Koordinakundeak, eta prentsaurrekoan agerrialdia egin duten alkateek, aldaketa honen ondorioz zerbitzua eskasagoa bihurtuko dela diote: «honek, beste eskualdekoekin berdindu beharrean, areagotu egingo ditu haiekiko ditugun desberdintasunak».

Herritarren babesa

Prentsaurrekoan, alkateek herritarren babesa sentitzen dutela adierazi dute.

Batetik, TOPA koordinakundeak 15.000 sinadura inguru jaso ditu, erreformaren aurka. Era berean, pasa den maiatzaren 22ko hauteskundeetako emaitzei begiratu diete; osasun publikoaren afera, eskualdeko ospitale publikoaren aldeko iritzia «argi eta garbi» azaldu zuten alderdiak izan ziren gehiengo lortu zutenak. Azkenik, Asuncion klinikako, osasun zentruko eta espezialitateen anbulatorioko langileek euren babesa eskaini diete auzi honetan, auzo-elkarte, sindikatu eta bestelako elkarteekin batera.

Hau guztia dela medio, «duela urte asko egin behar zen gauza baten alde» egin nahi dute: Asuncion klinika publikoa egitea. Horrela Osakidetza eskualdeko herritarrekin duen zor historikoa ordainduko duela diote alkateek. Honetarako, «edozeinekin hitz egiteko prest» ere azaldu dira.

Janiva Magness izango da Tolosand Blues-eko izarra

Gipuzkoako blues jaialdirik zaharrena da Tolosand Blues; aurten zazpigarren aldiz ospatuko dute

tzen dira Tolosara. Aurten, esaterako, parte hartuko duten bost taldeetatik bi estatubatuarrek izango dira.

Sax Gordon saxofoi jotzailea

Ostiralean, esaterako, Sax Gordon saxofoi jotzailea izango da gurean, eta munduko onenen artean dago.

I. Urkizu Tolosa

Datorren ostiralean eta larunbatean, Tolosand Blues jaialdia izango da Tolosan, eta Janiva Magness estatubatuarra izango da taldeen artean izenik nabarmena.

Zazpigarren Tolosand Blues-a izango da aurtengoa, eta bere lehenengo urtean kontzertuak Espainiako musikariek eskaini zituzten arren, gaur egun Ingalaterra eta Ameriketako Estatu Batuak bezalako lekuetatik etor-

Bestalde, larunbatean Janiva Magness estatubatuarra izango da oholtza gainean.

Magness sari ugari jaso ditu azken hamarkada honetan, eta espezialitate honetako kritikarien eskutik laudorio handiak jaso ditu.

Horrela beraz, Tolosako Udalak herritar guztiei luzatu nahi die musika beltzaren sustraietara gerturatzeko gaituen busaz gozatzeko gonbita.

↓ Tolosand Blues 2011, egitaraua

UZTAILAK 1, OSTIRALA

■ 22:30ean Plaza Berrian.

Sax Gordon saxofoi jole estatubatuarra (Detroit) eta Lluís Coloma piano jolea (Bartzelona). Hainbat musikaririk lagunduko dituzte eszenatokian.

■ 00:00etan Fronton Kafetegian.

De 2 en Blues Band taldea (Iruñea). Seikote nafar honek, bluesaz gain, afroamerikar musika, rhythm & blues, soul eta rock & roll-a ere lantzen ditu.

UZTAILAK 2, LARUNBATA

■ 20:00etan Amarotz auzoan.

The Boogalords taldea (Errenteria). Boogaloo musikako klasi-koek gain, jazz-funkya, bluesa edo latin-jazza ere lantzen dituzte, guztietan bat-batekotasuna erabiliz.

■ 22:30ean Plaza Berrian.

Janiva Magness abeslari estatubatuarra.

■ 00:00etan Fronton Kafetegian.

Sheilah Cuffy abeslaria (Ingalaterra).



Donostiako Fnac-en izan zen aurkezpena. HITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Eskualdeko 9 triatleta, Austriako Iron Manean

Igandeko proban 3,8 kilometro egingo dituzte igerian, 180,2 bizikletan eta 42,2 korrika

Asier Imaz

Eskualdeko bederatziko triatleta Austriara abiatuko dira gaur, Karnten Iron Man proban parte hartzeko helburuarekin. Mahala TTTko kideak dira ia denak, baina tartean bada Garraitz Kirol Taldeko partaidea ere, Itsaso Leunda.

Bederatzi horietatik zazpi tolosarrak dira, Edu Gonzalez ibartarra da, eta Leunda Hernialdekoa.

Guztiekin proba amaiteza dute helburu, baina baita maila ona ematea ere; batzuk 11 orduatik jaitzi nahi duten bezala, besteek 10 orduetan jarri dute muga.

Itsaso Leunda

9 kirolarien palmaresa begiratu eta hernialdetarra ezin da azpimarratu gabe utzi. Aurten Arrigorriagan lortutako garaipenarekin, Euskadiko Distantzia Luzeko Duatloiean txapela jantzi zuen. EcotriMad proban, distantzia ertaineko triatloian, hirugarren postua lortu zuen; 25-29 bitarteko adin taldean lehena gelditu zelarik. 2010ean hasi zen modu honetako probetan Leunda, eta lehen urte horretan, Ironcat-a irabazi zuen.

27 urte dituen kirolaria gogotsu doa Austria aldera. Helburu garbi

bat duela onartu du Leundak: «Ezeren aurretik bukatzea». Hala eta guztiz ere, Hawaii-en egingo den triatloio probarako txartela eskuratzeko ere gustatuko litzaioke: «40 neska egongo dira Austriara nire adin taldean, eta postuaren arabera lortu daiteke sailkapen hori».

Proba, igandean

Eskualdeko triatletek igandean prest egon beharko dute Iron Man-a egiteko. Ibilbidea benetan gogorra izango da, eta entrenamenduetan landutakoa erakusteko aukera polita izango dute Austriara. Aipatu behar da, Jon Marin tolosarra taldekideekin egotekoa zela hasiera batean, baina lesio baten ondorioz, Tolosan gelditu da.

Gauzak horrela, triatletak lehenik igerian ariko dira, 3,8 kilometroko distantzia egin beharko dutelarik, laku bateko uretan. Ondoren, txirrindua hartuko dute, 180,2 kilometroko ibilbidea burutzeko. Azkenik, zapatilak aldatu eta korri egiteari ekingo diote. Maratoi baten distantzia egin beharko dute korrika, hau da, 42,2 kilometro.

Mahala TTT eta Garraitz Kirol Taldeko triatletek denaren beharra izango dute Klagenfurt hirian jokatu den erronka gogor honi aurre egiteko. Klagenfurt Austria hegoaldean aurkitzen da, eta Carintiako Land-aren hiriburua da. Wörthersee lakuaren ur ertzean aurkitzen da, eta Esloveniarekin muga egiten du. Inguruaz gozatzeko aukera ere eskaintzen du.


↓ Helburuak



Ion Artutxa

Mahala TTT

«Ondo bukatu eta ahal den neurrian probaz gozatzea. 10 orduetik jaitea zaila ikusten dut, baina amets polita da».



Yon Gonzalez

Mahala TTT

«Bukatzea da ametsa, ez dago besterik. Oraindik gehiago: Korrika amaiteza sekulakoa izango litzateke».



Alar Sevillano

Mahala TTT

«8 orduetik jaitea! (Barreak) Ez, ahalik eta ongien bukatzea. Eta noski, helmugan ikurrina lepoan dudala sartzea».



Iñigo Esnaola

Mahala TTT

«Ahalik eta ondoen bukatzea. Korrika, mendia, arrauna, triatloia... erronka bat gehiago zaurkatzea da helburua».



Aitor Regillaga

Mahala TTT

«Ahal den lasterketa onena egitea. Sentsazio onekin bukatzea, eta iaz Ironcat-ean jasan nuen txakalaldia ez jasatea».



Alberto Vaquero

Mahala TTT

«Bukatzea da helburua. Eta noski, ahal dela disfrutatzea. 10 ordu azitik amaiteza di-da sinatuko nuke!».



Edu Gonzalez

Mahala TTT

«Iaz Boltonen egindakoa hobetzea helburu polita da, 11 orduko langa gainditzea gustatuko litzaidake».



Asier Saez

Mahala TTT

«Bukatzea, eta iaz Ironcat-ean egindako marka hobetzea, 11 orduetik jaitzi... eta inork amaiera ez zapuztea».



Itsaso Leunda

Garraitz

«Bukatzea beste ezeren aurretik, eta sari ederra litzateke Hawaii-rako sailkapena lortzea».

→ Laburrak

23.532 zenbakiak irabazi du Tolosa & Co-ren saria

TOLOSA ▶ Tolosa & Co elkarteak San Joanetako kanpainaren barruan egin duten zozketako zenbaki irabazlea aukeratu du: 23.532a. Txartela Dakaro dendan banatu zen, Korreo kaleko 50 zenbakian. Irabazleak 2.000 euroko balioa duen bidaia irabazi du. Txartela aurkezteko epea uztailearen 12an amaituko da, 10:30ean. Irabazlerik ez baldin bada agertzen, Tolosa & Co elkarteak zozketa berri bat egingo luke, zenbaki berri bat ateratzeko.

Paleta txapelketan izena emateko aukera zabalik

TOLOSA ▶ Tolosa CFek urtero antolatzen duen binakako paleta txapelketan izena emateko epea irekita dago. Bikote bakoitzak 20 euro jarri beharko ditu, 10 euro Tolosa CFeko bazkide direnek. Izena emateko aukera Tolosa CFen bulegoetan edo 943 671 749 edo 656 719 263 telefonora deituta dago.

Bilduren batzarra bihar, 20:00etan udaletxean

TOLOSA ▶ Bihar, 20:00etan, udaletxean Bilduren batzarra egingo dute. Bertan, besteak beste, udaletxeko antolaketa, batzordeak eta parte hartzeari buruz ariko dira.

Txotxongiloien buruzko beka eskatzeko aukera

TOLOSA ▶ Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroekin lankidetzan antolatutako jarduerarako 30 beketako bat eskatzeko epea, bihar amaituko da. Ikastaroa uztailearen 4an egingo da, Topic zentroan, eta izen-ematearen prezioa 35 eurokoa da; baina beka lortzen dutenek 21 euro besterik ez dituzte ordainduko. Tolosako Nazioarteko Txotxongiloen Zentroko arduradun Idoya Otegi eta Miguel Arretxe dira ikastaroaren zuzendariak, eta haren bidez erakutsi nahi dute txotxongilo antzerkia garrantzi handiko hezkuntza baliabidea dela, ikasleak motibatzen eta ikaskuntza sendotzeko.

Iragarki laburrak

LANA

■ Zerbitzaria eta sukaldaria.

Tolosako ostalaritza zentro batean, zerbitzari bat eta sukaldari bat behar dituzte udan lan egiteko. Ezinbestekoa da esperientzia izatea. Lanaldi osoa, goizez eta arratsalde. Interesatuak info@cmujika.net helbidera bidali curriculum edo deitu 661 463 193 zenbakira.

ALOKAIRUA

■ **Apartamendua.** Peñiscolan zazpi pertsonentzako egokitutako apartamendua alokatzen da. Hondartza aurrean. Balkoia, igogailua, aire egokitua, parkin-

ga eta bi igerileku. 617 42 89 52.

GALDUTAKOAK

■ **Bi txakur.** Gorbea arrazako bi artzain txakur marroi galdu dira. Gazteluko baserriatik alde egin zuten ostegunean. Ikusi dituenak dei dezala 636 44 22 54 zenbakira.

SALGAI

■ **Quad-a.** 2004 urteko Suzuki LTZ-400 Quad-a salgai. IAT-a pasata, extra askorekin eta oso egoera onean. Interesatuak, deitu 600 75 25 37 telefono zenbakira.

Asteasu »



HAURRAK IZAN DIRA SAN PEDRO JAIEI HASIERA EMATEN LEHENAK

Azto eman zieten hasiera San Pedro Jaiei. 10:00etan bota zuten haurrek euren txupinazoa. Ondoren krosa eta marrazki lehiaketa egin zituzten. Haur parkea, antzerkia eta bazkaria ere izan zituzten. Sorginaren jaitsie-

ra 20:30ean egin zuten. Gaur San Pedro eguna ospatuko dute. 10:00etan diana eta 11:00etan Meza Nagusia izango dira. Jarraian hamaiketako, sokadantza eta Pilota Eskolako txapelketako finalak jokatuko dituzte.

17:30ean, Albokarekin kalejira, eta 18:00etan Asteasu-ko eskolak eskainitako musika jaialdia izango da. Herriko musikariek 19:00etan egingo dute kalejira. Gugaz taldearen erromeria 23:00etan izango da. ENERITZ MAIZ

Gutuna

Esnaolari argi pixka bat

Ekainaren 27an Anoetako festen egitarauaren barruan *Gixon proba* jokatu zen. Lau pertsona-ko lau talderen artean izan zen lehia, ea 400 kilogramoko harriarekin 10 minututan zeinek plaza gehiago egin. Lan gogorra izan zen parte hartzaileentzat, ikaragarriko beroa izan baitzen; hala ere lan txukuna egin zuten eta giro aparta jarri herriko plazan.

Gixon probaren ondoren Anoetako herri kirol zaleok Aitor Esnaola Legorretako presoari animoak emateko, eta bere as-

katasuna eskatzeko argazki bat atera genuen. Izan ere, azken urteetan bere aldetik laguntza handia jaso baitugu herri kirolak antolatzeke garaian, eta ziur gaude aurten ere hemen izan balitz bere prestutasuna izango genuela edozertan laguntzeko.

Argazki hau Aitorri bidaliko diogu bere ziega ilunean argi pixka bat sartzea lortu asmoz. Herriar orori deia luzatzen diogu euskal presoekiko elkartasuna areagotu eta beren eskubideen alde mobilizatzea.

■ **Anoetako Herri Kirol Zaleak.**



→ Laburrak

Elbarrenako festetarako kartel lehiaketa prest dago

ZIZURKIL » Zizurkilgo festa batzordeak, Elbarrenako festetako Kartel Lehiaketa antolatu du. Edozeinek parte har dezake. Lanak DIN A4 tamainan aurkeztu beharko dira. Lau kolore erabili beharko dira eta teknika librea erabili daiteke. Nahitaezkoa izango da, *Zizurkilgo Jaiak 2011. Irailak 7, 8, 9, 10 eta 11* testua agertzea. Lanak Uztailaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira udal bulegoetan (Aurrera plaza 3) edo liburutegian. Irabazlearentzako saria, 175 eurokoa izango da.

Santamañako XI. Kros igoera uztailaren 10ean

ASTEASU » Asteasuako Santamañako XI. Kros Igoera izango da uztailaren 10ean. 10:30ean izango da irteera, eta 7 kilometroko ibilbidea egin beharko dute. Izena ematea irteera baino ordubete lehenago irekiko dute herriko plazan, edo 943 69 68 96-943 69 34 00 telefono zenbakietara deituz. Lehenengo bostek izango dute saria, eta parte hartzaileen artean materiala zozketatuko dute.

Izena ematea zabalik dago 3x3 saskibalo txapelketan

ZIZURKIL » Zizurkilgo Gaztiak 3x3 saskibalo txapelketa antolatu dute. 16 urtetik gorakoentzat izango da, eta taldeak mistoak ere izan daitezke. Izen ematea, Egarri tabernan edo 627 28 93 92 telefonora deituz egin daiteke uztailaren 15a bitartean. Irailean hasiko da.

Larunbatean kuadrilen eguna ospatuko dute

Uztailaren 2an guztiak Joxe Arregi plazan elkartuko dira 12:30ean; festetako blusa jantzita joateko deia egin dute

Eneritz Maiz Zizurkil

Zizurkilgo Festa Batzordeak Kuadrilen eguna antolatu du. Larunbatean, uztailaren 2an izango da Joxe Arregi plazan. Eguna 12:30ean hasiko dute triki poteoa

eginez. Ondoren, 14:30ean bazkaria egingo dute.

Kuadrila bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du. Festa Batzordeak berriz, sagardo barrikotea jarriko du bertaraten diren guztientzat. Jarraian jolasak egingo dituzte. 18:30ean berriz, Kantuki taldearekin erromeria egingo dute.

Festa batzordeko kideek, festetako blusa jantzita ateratzeko deia luzatu dute, eta «herriari kolore pixka bat ematea» nahi dute la adierazi dute.

‘Dantzatuko dugu?’ ikuskizuna izango da Gurean, ostiralean

Hutsunea Betez elkarteak antolatuta 20:00etan hasiko da dantza erakustaldia doan Gurea antzokian

E. Maiz Amasa-Villabona

Villabonako Hutsunea Betez elkarteak, uztailaren 1erako ikuskizun berri bat prestatu du. Gurea antzokian izango da *Dantzatuko dugu?* emanaldia. 20:00etan hasiko da eta sarrera doan izango da.

Dantza ikuskizuna izango da, eta era askotako dantza eta musikaz gozatzeko aukera izango da: Arabiar dantzak, areto dantzak,

sabel dantzak, flamenkoa, dantza latinoak eta askoz gehiago dantzatuko dituzte.

Amasa-Villabona bertako emakumeek parte hartuko dute baina dantzan adituak direnak ere izango dira: Asmube, Ane, Leany edota Tobalo Iglesias igoko dira Gurea antzokiko taula gainera, beraiek dantzarako duten gaitasuna erakutsi asmoz ikuskizun dinamikoa antolatu dute.

Hutsunea Betez elkarteak emakumeek, ikuskizuna, maitasunarekin eta kolorez jantzita prestatu dute. «Poztasun eta bizitzaren indar guztiarekin» antolatua izan da. Adin eta pentsaera ezberdinetako jendeari zuzendua dago ikuskizuna. Herriar guztiei bertaratzeko gonbitea egin diete.

PATXINE JATETXEA



Gure berezitasuna
Euskal sukaldaritza
eta
etxeko postreak

Tel.: 943 69 10 25 • Errementari kalea, 1 • ASTEASU

FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK

Gertu...

V I L L A B O N A K O
H I L E T A Z E R B I T Z U A K
B E I L A T O K I eta S U L A B E A

24 H..

943 694 873



www.funerariavascongada.com



Asteburu guztian zehar mota guztietako motoak eta motozaleak elkartuko dira, Ibarrran. S. GOMEZ

Motozaleen topagune bilakatuko da Ibarra

Langostino Moto Festa asteburuan ospatuko da; akrobaziak eta kontzertua izango dira, besteak beste

M. Ugartemendia Ibarra

Urtero bezala, iritsi zaie inguruko moto zaleei eta Ibarrrako Langostinoei beraien pasioa eta festa uzartzeko garaia. Asteburu honean ospatuko dute IX. Langostino Moto Festa.

Larunbat eguerdian moto zale guztiak Ibarrrako plazan elkartzen direnean emango diete festari hasiera, eta igande eguerdiko bazkarira arte moto burrunbak izango dira nagusi. Urtero bezala, ez dira motorrekin egindako jokoak, rock jaialdia edo streptesea faltako. Horrez gain, Andre Colombo, portugaldarrak, motorrekin egindako akrobaziak eskainiko ditu, Euskal Herri kalean. Urtero jende asko erakartzen du erakustaldi honek.

Errepidea itxita

Ibarrrako Udalak uztailearen 2an eta 3an ospatuko den IX. Langostino Moto Festa dela eta, egingo diren trafikoko mozketen eta erregulazioan egingo diren aldaketan berri eman du.

Alde batetik, aparkatzeko zenbait murriztapen izango dira. Larunbatean, Euskal Herria kalea 1 eta 17 zenbakien arteko gunean ezin izango da aparkatu, 14:00etatik 21:00etara. San Bartolome kalean, kioskotik hilerria igotzeko

eskaileretarako gunean ere ezin izango da aparkatu egun guztian.

Aparkatzeko murrizketez gain, errepide mozketak ere izango da larunbatean; Euskal Herria kalea 1 eta 17 zenbakien arteko gunea, 18:00etatik 21:00etara itxiko baitute.

Mozketa eta erregulazio horiek eragin ditzaketen ondorioak ahalik eta kalte gutxien sortu ditzaten, alde aurretik udalak «barkamena» eskatu du sortu ditzaketen eragozpenengatik.

↓ IX. Langostino Moto Festa

UZTAILAK 2, LARUNBATA

- **14:00.** Denak elkartutakoan, festari hasiera emango diote.
- **17:30.** Motorrekin jokoak.
- **19:30.** Andre Colombo, portugaldarrak, moto akrobaziak egingo ditu.
- **21:00.** Afaria.
- **22:30.** Zuzien desfilea.
- **23:00.** Rock jaialdia The Red Tops taldearekin.

- **02:00.** Streptesea mixtoa.
- **03:00.** Dj Andoni.

UZTAILAK 3, IGANDEA

- **09:00-10:00.** Gosaria.
- **10:30.** Motorrekin bira egingo dute; bidean, hamaiketako egingo dute.
- **13:00.** Ibarrra itzuliko dira.
- **14:00.** Bazkariarekin amaiera emango diote festari.

Erlazioak zaintzeko eta komunikazioa lantzeko ikastaroa antolatu dute

Ikastaroa irailean izango da, baina, izena uztailearen 5a baino lehen eman beharko da gizarte zerbitzuetan

M.U. Ibarra

Ibarrrako Udalak eta Uzturpe Ikastolak elkarlanean «norberarekin eta ingurukoekin dugun harremana hobetu nahi duen edonorentzat zuzendutako ikastaroa» antolatu dute, datorren irailerako. Eta, ibartar guztiei bertan parte hartzeko deia luzatu diete.

Ikastaroan Indarkeriarik Gabeko Komunikazioa landuko da, antolatzaileen arabera teknika hau «gure buruarekin eta ondoekin ditugun harremanak hobetzeko» erabiltzen da. IGK giza-banako eta taldeetan irakatsi eta

aplikatzen da, eta «sentitzen duguna zintotasunez adierazteko aukera ematen du». Gune gatazkatsuetan ere erabiltzen da metodo hau, bitartekaritza lanetan (Israel, Kosovo, Ruanda, etab.). Gainera, antolatzaileen esanetan «lagungarria gertatuko zaigu bizi-kalitatea hobetzeko eta irtenbide iraunkorrak eta eraldatzaileak aurkitzeko aukera emango digu».

Izen ematea

Ikastaroa irailaren 16an eta 17an izango da, Ibarrrako Kultur Etxean. Nerea Mendizabal, Psikopedagogoa, gizarte hezitzailea eta haur masajeko hezitzailea, izango da ikastaroa emango duen pertsona. Izena uztailearen 5a baino lehen eman beharko da, Ibarrrako gizarte zerbitzuetan. Hala ere, informazio gehiago nahi izanez gero 943 67 12 99 telefonora deitu daiteke.

Mendibilekoak Aizoanera joango dira BTT irteeran

Izena emateko azken eguna hilaren 30a izango da, eta ohiko liburu dendetan edo korreoz eman daiteke

M.U. Leitza

Mendibil Mendi Taldekoek BTT irteera antolatu dute larunbat honetarako. Zehazki, Aizoain-Atarrabia-Orikain-Azoz-Ezkaba-Aizoain ibilbidea egingo dute.

Gauzak honela, larunbatean 08:00etan Leitza kiroldegitik abiatuko dira irteera joaten direnak. Eta, beharrezkoak izango dira kaskoa eta ordeko kamara ematea. 31,5 kilometroko luzera izango du ibilbidea, eta horretarako 3:30 ordu inguru beharko ditzutela uste dute Mendibilekoek. Izena emateko azken eguna hilaren 30ean, ostegunean, izango da, eta Astiz edo Maimur liburu dendetan edo mendibilbtt@hotmail.com helbidean eman daiteke.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Alkateen elkarrizketak →

Maier Ugartemendia Ibarra

Lanez lepo dago Jesus Peñagarikano (Albiztur, 1959) Ibarra alkatea. Duela bi aste hartu zuen berarentzat guztiz berria den kargua, baina, dagoeneko badu nahikoa zeregin. Bildu koalizioak gehiengo absolutua lortu zuen maiatzaren 22ko hauteskundeean, zortzi zinegotzirekin. EAJk 2 eta PSE-EEk 1 lortu zituzten.

Datozen lau urte hauetan «gardentasuna eta parte hartzea» bulztatuko dituztela dio. Ibarra eman nahi diete nolako Ibarra eraiki erabakitze eskubidea, eta horretarako, herri batzordeen bidez egin nahi dute lana.

Zer sentitu zuen alkate kargua hartu zuen egunean?

Kargua hartzea, azken batean, gure kasuan, ekintza administratibo moduko bat izan da. Sentitu sentitu, poza, ardura... maiatzaren 22an sentitu nuen eta genuen, udalean zortzi izango ginela jakin genuenean. Nolanahi ere, polita izan zen 22koa, askorentzat zortzi urte luze joan dira eta ikusi eta nabaritu zen jendea pozik eta gogotsu dagoela.

Zer moduz egokitu zara lan berrira?

Egokitzen ari naiz, astebete eskas daramat, baina iruditzen zait lanak emango dizkigula lan berri honek.

«Ekainaren 11n nabaritu zen jendea pozik eta gogotsu dagoela»**Zuen aurretik egon den udalaren zer balorazio egiten duzu?**

Goizegi da balorazio orokor bat egiteko, baina lehen aste honek bistaratu dizkigu hainbat gestioakats garrantzitsu. Balorazioaren eta egoeraren berri emango diogu herritarrei egin bezain pronto, denok garbi izan dezagun nondik abiatzen garen.

Zeintzuk izango dira hurrengo lau urteetan zuen lanaren ildo nagusiak?

Kanpainan zehar sarritan aipatu ditugu gardentasuna eta parte hartzea, eta horien eskutik ibiliko gara. Parte-hartze mekanismoak herdoilduta egongo dira seguruenik eta guri dagokigu behar



M. UGARTEMENDIA

Jesus Peñagarikano ◉ Ibarra alkatea

Ibarra alkatea izango da datozen lau urte hauetan Bildu koalizioako Jesus Peñagarikano; «herritarren parte hartzea» eta «gardentasuna» izango dira beraien lanaren ildo nagusiak.

«Ibarra galdetuko diegu zer-nolako Ibarra nahi duten»

bezala koipeztatu eta martxan jartzea.

Zein izango da zuen lan sistema?

Lan-taldeak antolatu nahi ditugu, herritarrak erabaki dezala zer arlotan egin nahi duen lan eta herritarrekin batera erabaki erabaki behar dena.

Udalaren kudeaketan berriak izanda, nola moldatuko zarete lanarekin?

Moldatu beharko. Eta horretan ezinbestekoak izango ditut, jakina, udal langileak eta antzeko atakatik pasa diren aurrekoen esperientzia.

Zein da udalaren egoera ekonomikoa?

Urte erdia igaro da eta ikusten ari gara zer geratzen den beste erdian heltzeko. Badakigu eguneko

zentroaren proiektuak mugatuta utziko gaituela bolada luze baterako, azken orduko ezustekoren bat ere izan dugu... Azken batean, buelta dezente eman beharko dizkiegu zerbaki, ezer egin nahi badugu.

Jada abian dauden ekimenekin aurrerajartzeko asmoa al duzue?

Administrazioak badu funtziona-

tzeko modu bat eta gauza batzuekin jarraitu besterik ez dago. Baina aukera baldin badago zer bait aztertu eta hobetzeko, ez dugu aukera hori pasatzen utziko.

Zer egingo da Plan Orokorrekin?

Gure programan garbi jarri genuen ibarbarrei galdetu egingo genielako zer-nolako Ibarra nahi duten etorkizunean, eta horixe egingo dugu.

«Lan-taldeak antolatu nahi ditugu, herritarrak erabaki dezala zertan egin nahi duen lan»**«Eguneko zentroaren proiektuak lotuta utziko gaitu bolada luze baterako»****Eguneko zentroa geldirik aurkitu duzue, eta sententzia bat ere badago tartean. Aurrera begira zer pauso emango dituzue gai honen inguruan?**

Geldirik egon da Iberdrolak lan batzuk egin behar zituelako linea bat lurperatzeko. Oso aurreratu dagoen proiektua da, diru aldetik lotuko gaituena, aurreko korporazioak oso ur handitan sartu duelako udala, baina tartetxo bat badaukagu aztertze eta horretan ari gara, baina jakitun gara denbora aurka dugula. Zerbitzu batzuk nahitaezkoak dira herri batean, baina beharrak eta indarrak ondo neurtuta heldu behar zaie.

Zabor bilketak zer sistema izan beharko lukeela iruditzen zaizu?

Arazo handia da zaborrena, zenbat sortzen den batik bat. Hortik hasi behar dugu, gutxiago sortetik, eta horra bideratzen den sistema da egokiena. Energia aurrezte, birziklapena, berrera-bilpena, konpostajea... horietaz guztiaz jardun beharko dugu, baina iruditzen zait denok jarri behar dugula gure alea, ohiturak aldatu, ezin dugu pentsatu administrazioak berak bakarrik, bi, lau edo zortzi edukiontzi jarrita, horren arazo larria konpondu dezakeenik. Nolanahi ere, herritarrek erabaki beharko dute hemen ere.

TOLOSALDEKO hitza
ETA LEITZALDEKO
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astelegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldea.hitza.info
www.leitzaldeko.hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea, atzea - 20400 Tolosa

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak:	•NA:
•Lanbidea:	•Jaioteguna:
•Helbidea:	•Herria:
•P.K.:	•Tel.:
•Posta elektronikoa:	
•Kontu zenbakia:	<input type="text"/>



GOIZA	LAINOTUA
ARRATSALDEA	LAINOTUA
BEROENA	17°
HOTZENA	9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Baliarain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIK

- **Tolosa.** Gazte Topaguneak antolatutako Uda Gaztea ekimenaren barruan, Arcachonera irteera egingo dute gaur.
- **Ibarra.** Larunbatean, uztaik 2, Txindokiren magalean, Larraitzen, egingo den autodeterminazioaren aldeko mosaiko erraldoierako entsegua egingo dute gaur, Larraitzen bertan 18:00etan. Ibarra Udalak herriar gutziak gonbidatu ditu bertan parte hartzera, eta horretarako honako telefono zenbakietara deitu behar da: 652 775 923 edo 649 311 757 (Anjel Oiarbide).
- **Alegia.** Sagardotegi menua izango dute herriko festetako afarian, uztaik 16ean. Txartelak salgai daude Kultur Etxean, Jubilatuen tabernan, Hilario Berrin, Eizmendin eta Kurpil tabernan. Haurren herri bazkarirako, uztaik 14rako, txartelak salgai daude Kultur Etxean.
- **Ibarra.** Uztaik 2 eta 3ko IX. Langostino Moto Festan parte hartzeko langostinomotofesta@gmail.com helbidera idatzi behar da.

JAIK

- **Asteasu.** San Pedro jaien barruan gaur, 10:00etan diana; 11:00etan meza nagusia eta ondoren, hamaiketako, sokadantza, eta Pilota Eskolako Txapelketako finalak; 17:30ean Alboka taldearen kalejira; 18:00etan herriko eskolak eskainita musika jaialdia plazan; 19:00etan herriko musikarien kalejira; eta 23:00etan Gugaz taldearekin erromeria plazan.
- **Leaburu.** San Pedro jaien barruan gaur, 09:30ean festel hasiera emateko dultzaineroen kalejira; 11:00etan meza nagusia, eta ondoren dultzaineroak,

herriko dantzarien emanaldia, eta hamaiketako; 12:00etan Toka Txapelketa herriko plazan; 17:00etan ume jolasak, eta ondoren txokolate jatea; eta 21:00etan barrikotea.

■ **Urkizu.** San Pedro jaien barruan gaur, 11:00etan meza nagusia eta ondoren hamaiketako.

ZINEMA

- **Leitza.** Atekabeltz gaztetxeak antolatutako Udako Zinemaldiaren barruan, *Los Educadores* film alemaniarra eskainiko dute gaur, 22:00etan.

ANTZERKIA

- **Tolosa.** Amaroako XIII. Antzerki Astearen barruan gaur, Los Gorrioren taldearen *Un paseo por el mar* 19:00etan.

ERAKUSKETAK

- **Alegia.** Garai bateko Alegiako argazkiak Jubilatuen tabernan. Bihar da azken eguna.
- **Larraul.** Pisuak eta balantzak biltzen dituen erakusketa Ekomuseoan iraila bitarte.
- **Ibarra.** Ikasturtean zehar egon diren tailerretan egindako lanak ikusi daitezke uztaik 8a bitarte Kultur Etxean.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Tolosa



AZKEN ERAILKETAK SALATU DITUZTE

Bilgune Feministak deituta elkarretaratzea egin zuten herenegun Trianguloan, emakumeen aurkako azken bi erasoak salatuz. Izan ere, aste honetan argitu dute Durangon bizi zen emakume baten heriotza eragindakoa izan zela, eta herenegun goizean Portugaleten emakume bat eta bere se-

mea hilik aurkitu zituzten. Horiek horrela, «gure bizitzako esparru guztietan ematen den egiturazkoa den indarkeria» salatu zuten. Leitzan ere, eskubide zibil eta politikoaren aldeko elkarretaratze bat baliatu «emakumeen kontrako eskubide urraketak» arbiatu zuten eskuorriak banatuz. A.MAZ

Irudikatu mundua BERRIArekin

Egin harpidedun eta jaso argazki kamera hau OPARI

EZAUGARRIAK:

- Kamera digitala, 10 megapixelekoa.
- LCD pantaila, 2,4 hazbetekoa.
- Zoom digitala, x4, argazkiak handitzeko.
- Mugimenduko JPEG bideo formatua.
- Mikrofonoa.
- SD memoria txartelak onartzen ditu.

Zu zara berria

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

agurrak

Uztaik 15ean, telebista hau zotz egingo dugu berriaren harpidedunen artean, Super Sonidoren eskutik.

EZAUGARRIAK:
SONY KDL-37EX720 - Edge LED Full HD 3D telebista, familia guztientzat. 94 cm/37". Motionflow XR 200. Internet bidezko bideoa eta Skype™ dituen.

- 3D eta 2D irudi kalitate bikaina eta garbia.
- Goza ezazu Interneteko bideoez eta Skype™ bidezko dei doakoek.
- Aurreratu denbora eta energia funtzio adimendunei esker.

Harremanetarako:
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

SUPER SONIDO
Urbieta, 40 • Donostia
Tel.: 943-45 69 02
www.supersonido.com

AUKERA ezazu, BIZI euskaraz **berria**